Harousseau (14)	208	Ve/Dexa VAD	>87 >88	>66 & >50	38 28	-
Goldschmidt (15)	406	TAD VAD	72 75	-	-	19 13
Lokhorst (20)	402	TAD VAD	13 14	49 & (+RC) 32	-	16 11
Barlogie (17)	668	TT/T TT	-	-	-	62 & 43

9. taula.- OSPO: oso sendatze partzial ona; A:adriamizina; D: dexametasona; T: talidomida; TT: "total therapy"; V: vinkristina; Ve: velcade; &: esangura estatistikoa.

KONKLUSIOAK ETA OHARRAK.-

- Ikerketak konparatzeko zailtasunak
 - Erantzuna baloratzeko irizpide diferenteak
 - Datu demografikoak ez dira nahikoak
 - Inklusioko irizpide batzuetan absentsiak
- Talidomida edo velcade gehitzeak erantzunak gehitzen ditu
- Eraginkortasuna txikiagoa da GHT ostean
- Seguruenik velcade hobea da talidomida baino GHT ostean
- Oraindik ez dago biziraupenari buruzko emaitzarik (TTIIIren kasuan izan ezik)
- Harousseau-ren eskema (14) da agian etorkizunean emaitzarik onenak eman ditzakeena

4. GHTarekin AREAGOTZE-TRATAMENDURIK HARTUKO EZ DUTEN PAZIENTEEN TRATAMENDUA

Palumbok, 2006an, melfalan/prednisona konbinazio klasikoa, batetik, eta tratamenduaren hasieratik gaixoberritzea edo progresioa gertatu arte 100 mg/eguneko dosian talidomida gehituz egindako eskema bera, bestetik, konparatu zituen (21). Talidomida hartu zuten pazienteen erantzun-tasa modu esanguratsuan igo zen beste pazienteekiko: % 76 SO+SP, % 47,6arekin konparatuz (% 15,5 SO vs % 2,4) 18 eta 15 hilabeteko batez besteko jarraipenaren ondoren, GGB % 54koa izan zen melfalan/prednisona/talidomidarekin eta % 27koa melfalan/prednisonarekin.

3 urtera biziraupen globala % 80koa izan zen MPTrekin eta % 64koa MPrekin (p: 0,19) 3-4 mailako albo-ondorioak % 48koak izan ziren talidomida erabili zenean eta % 25ekoak botika hori gabe. Enoxaparina gehitzeak % 20tik % 3ra jaitsi zuen tronbosi benoso sakonaren (TBS) tasa. Talidomidarekiko tratamenduaren batez besteko iraupena 8 hilabetekoa izan zen.

Aldizkari berean, 2007. urtean, talde frantziarrak beste konparazio bat egin zuen: melfalan/prednisona eskema, batetik, eskema bera melfalan/prednisonako hamabi zikloetan 400 mg/egun talidomida gehituz, bestetik, eta bi VAD ziklo, mobilizazioa eta OPZG aferezia eta melfalanekiko bi areagotze (100 mg/m²-ko dosian) barne hartzen zituen hirugarren lerro bat, azkenik (22). SO tasa % 2koa izan zen MPrekin, % 13koa MPTrekin eta % 18koa melfalan 100ekiko 2 areagotzeren ostean, eta OSPO+SP tasak % 7, % 47 eta % 43koak, hurrenez hurren. 51,2 hileko batez besteko jarraipena egin ondoren, biziraupen-medianak ondorengoak izan ziren hiru taldeentzat: 33,2 hil (MP), 51,6 hil (MPT) eta 38,3 hil (Mel 100 x2). Biziraupena nabarmen hobea izan zen MPTrekin beste tratamenduekin baino.

Talidomidarekiko tratamenduaren batez besteko iraupena 11 hilabetekoa izan zen. Talidomida hartu zuten pazienteen % 45ek garaia baino lehenago utzi zuten tratamendua bere toxikotasunagatik. 3. mailako edo goragoko toxikotasun estrahematologikoa gertatu zen MP hartu zuten gaixoen % 16an, MPT hartutakoen % 42an eta MEL-100 bikoitza hartutakoen % 58an.

MV Mateosek 2006an argitaratu zituen adinean aurrera zihoazen 60 pazienterekin melfalan, prednisona eta bortezomib erabiliz egindako tratamenduaren emaitzak (8 dosi zikloko aurreneko lauetan eta 4 dosi zikloko hurrengo bostetan) (23) SO tasa % 32koa izan zen (EBMTren erantzun-irizpideen arabera) eta SO+SP tasa, berriaz, % 89koa. 16 hileko batez besteko jarraipenarekin, GGB % 83koa izan zen eta 2 urtera proiektatutako biziraupena, aldiz, % 86koa. Pazienteen % 23an bortezomib-dosia gutxitu egin zen eta % 13an emateari utzi egin zitzaion. Toxikotasun digestiboa eta neurologikoa (polineuropatia) izan ziren toxikotasun estrahematologiko nagusiak.

Oraintsu eguneratu dira aurreko azterketaren jarraipenari dagozkion emaitzak (24). 26 hileko batzez besteko jarraipenaren ondotik, progresiorainoko eta GGBrainoko denbora-medianak 20 eta 25 hilekoak dira, hurrenez hurren, eta 3 urtera proiektatutako biziraupena, aldiz, % 85ekoa.

NCNNren gida amerikarrak (25) melfalan/prednisona/talidomida eskema erabiltzea gomendatzen du paziente talde horretan, talde frantziarraren emaitzetan oinarrituz (22)

Reeceren berrikuspenak ez du lehendik aipatuarekiko datu berririk eranstean (8). Bere iritzian, talde frantziarraren emaitzak ikusita, adinean aurrera doazen pertsonetan melfalanekin 100 g/m²-ko dosian egindako areagotzearen eraginkortasuna zalantzan jar daiteke.

2007ko ASHko bileratik irten zen heziketa-programan ere *Fonseca*ren iritziz talde frantziarraren melfalan/prednisona/talidomida konbinazioa litzateke tratamendu estandarra paziente talde horretan (2).

Kylek oraintsu egindako berrikuspenean (12) aurreko hiru azterketak aipatzen ditu eta baita emaitza oso onak lortutako *Palumboren* beste lan bat ere, eta bertan melfalan, prednisona eta lenalidomida konbinatzen ziren (26). Berak dioenez, gaur egun lankidetzaz-azterketa bat ari dira egiten ECOGen melfalan/prednisona/talidomida eta melfalan/prednisona/lenalidomida konbinazioak erabiliz.

2007ko ASHren bileran aurkeztu ziren melfalan/prednisona/bortezomib konbinazioa *Mateosen* eskemarekin batera eta melfalan/prednisona eskema klasikoaren arteko lankidetzako ikerketa ausazkotu zabal baten emaitzak (27). Ausazko pazienteen kopurua 682koa izan zen guztira, eta horien batez besteko adina 71 urtekoa. SO tasa % 30ekoa izan zen MPVrekin, eta % 40koa MPrekin. SP tasa eta erantzun globalen tasa % 40koa vs % 31koa, eta %71koa vs % 35ekoa izan ziren, hurrenez hurren.

16,2 hileko batez besteko jarraipenaren ondotik, diferentzia estatistikoki esanguratsuak gertatu ziren MPV eskemaren alde, progresioa bitarterainoko denboran, eta GGBn eta biziraupenean.

10. eta 11. tauletan lan desberdinen arteko emaitzak konparatu ditut, aurreko ataleko tauletan aipatutako zailtasun berekin.

Autorea	Kopurua	Tratamendua	Adina	D - S III. estadioa %	NPI % 3	Creat> % 2
Palumbo (21)	255	MPT MP	72 72	58% 59%	- -	11 12
Mateos (23) (24)	60	MPVe	75	-	17	0
Facon (22)	447	MPT MEL100 MP	65-75	90 94 91	29 35 30	9 13 7
Palumbo (26)	53	MPL	71	32	-	0
San Miguel (27)	682	MPVe MP	71 71	- -	35 34	6 (ac<30) 5 (ac<30)

10. taula.- D-S: Durie eta Salmon; L: lenalidomida; M: melfalan; P: prednisona; T: talidomida; Ve: velcade; NPI: nazioarteko pronostiko-indizea

Autorea	Tratamendua	SP %	OSPO %	Ia SO %	SO %	GGB (2 urte)	B (3 urte)	BBJ (hilak)
Palumbo (21)	MPT MP	60,4 45,2	- -	12,4 4,8	15 2,4	54 & 27	80 64	16
Mateos (23) (24)	MPVe	45	-	11	32	58	85	26
Facon (22)	MPT MF100 MP	>75 >65 >35	>47 >43 >7	- - -	13 18 2	60 & 40 37	68 & 50 48	51,5
Palumbo (26)	MPL	39	26,8	-	17	80	88	14,6
San Miguel (27)	MPVe MP	40 31	10 5	- -	30 4	- -	89& 69	16,3

11. taula.- L: lenalidomida; M: melfalan; OSPO: oso sendatze partzial ona; BBM: batez besteko jarraipena; P: prednisona; B: biziraupena; GGB: gaixotasunik gabeko biziraupena; T: talidomida; Ve: velcade; &: esangura estatistikoa.

Paziente talde honetan eraginkortasunik handiena erakutsi duten hiru eskemen ezaugarriak, albo-ondorioak eta toxikotasuna konparatu ditut 12. taulan.

	S. Miguel(27)	Palumbo(21)	Facon(22)
Konplexutasuna	xxx	x	x
Iraupena (hilak)	54 aste	24 aste	72 aste
Tronbositia	% 1	% 12, % 3	% 12
Polineuropatia	% 14	% 8	% 6
Pneumonia	% 7	% 5	% 7
Idorreria	% 1	% 6	% 10
Beherakoak	% 8	no	no
Tratam. ez dute amait.	% 15	% 17/ % 9	-
Hilkortasun toxikoa	-	% 8	0
Talidomidaren iraupe.	-	8 hilabete	11 hilabete

12. taula

Ikus daitekeen bezala, *Palumbo* eta *Faconen* eskemak sinpleagoak dira *San Miguelen* eske-
ma baino; tronbosiaren intzidentzia handiagoa da talidomida erabiltzen denean (enoxapa-
rinak murriztu egiten baitu intzidentzia hori), polineuropatia usuagoa da velcaderekin, ido-
rria talidomidarekin agertzen da eta beherakoak, berriz, velcaderekin.

OHARRAK ETA KONKLUSIOAK

- Emaitez nabarmen egiten dute hobera MPri talidomida edo velcade gehituz gero.
- SO tasa handiagoa MPVe-rekin.
- Jarraipena balora daiteke MPTrekin.
- Antzeko emaitzak biziraupenari (B) dagokionez.
- MPTrekin tratatutako pazienteen serieetan giltzurrun-gutxiagotasuna dute kasu gehiago ikusten dira.

5. GHTArekin AREAGOTZEKO TRATAMENDUAK MIELOMA ANIZKOITZEAN

Berrikuntza gutxi izan dira atal honetan. Bada kontuan hartzeko moduko gauza interesgarri bat: IFM talde frantziarraren melfalan/prednisona/talidomida konbinazioak, lehen aipatutako 100 mg/m²-ko melfalanekiko transplante bikoitzaren aldean (22) erakusten duen nagusitasuna.

GHTArekin egindako areagotze-tratamenduak 1. mailako gomendioa izaten jarraitzen du (adostasun uniformea eta ebidentzia-maila altua) NCCNren gidarentzat (25) Hasierako tratamenduari erantzuten ez dioten edo aurrera egiten ez duten pazienteen kasuan indikazioari eutsi egiten dio gida horrek. Era berean, bigarren GHTA baten indikazioari eusten dio, baina aurreneko transplantearen ondotik SP izaten duten pazienteetan soilik.

Attalek 2007an (28) gogorarazi zuen melfalana 200 mg/m²-ko dosian erabiltzea emaitza hobekin lotu izan dela beti, eta biziraupena handiagoa izaten dela erradioterapiarekin edo busulfan-ekin baino.

GHTAren emaitzetan eragina izan zuten faktore pronostikoei dagokienez, 2007ko ikerketa bat aipatzen du; bertan, 700 bat pazienteren aldagai anitzeko analisi batek t(4;14), del(17p) eta beta-2-mikroglobulinaren tasa altua identifikatu ziren faktore pronostiko negatibo eta independente moduan (29). Horrez gain, 200 mg/m²-ko melfalan tratamenduari bortezomib gehituz egokitze proposamena ere askoz hobea izan daitekeela dio.

Faconen emaitzak komentatu ondoren (22), 65 urtetik gorako pazienteetan GHTA ez erabiltzea gomendatzen du.

J San Miguelek, berriz, oraintsu egindako berrikuspenean (18) GHTAren indikazioari eutsi egiten dio tratamendu berriak egin ondoren, elkar osagarritzat jotzen baititu.

Kylek ere ez du berritasunik aipatzen GHTAren indikazioan (12)

Bensingerek bere aldetik dio medikazio berriekin tratamendu batzuek hobetu egin ditza ketela GHTAren emaitzak eta agian, batzuek beste batzuek baino hobeto. Zera dio gainera, hasierako tratamenduekin SO lortzen duten pazienteek, agian, ez dutela GHTArekin areagotze-tratamendurik hartu beharko. Bide horretatik, SO lortzeak biziraupena gehitzen duela dio, sendatze hori zein unetan lortzen den albo batera utzita, atzera-begirako azterketek erakusten dutenez behintzat.

6. TRANSPLANTE ALOGENIKOA MIELOMA ANIZKOITZEAN

NCCNren gida amerikarrak onartzen du transplante alogenikoak egiteko aukera, erreskateko tratamendu bezala GHTAren ostean aurreranzko pausoa ematen duten pazienteetan, saiakuntza klinikoen barruan betiere (25).

2006an Mielomaren Frantziako Taldeak lan ausazkotu interesgarri bat argitaratu zuen transplante alogenikoaren eraginkortasuna baloratzeko. Lan horren arabera, VAD eta MEL-200 tratamendua hartu zuten eta beren diagnostikoan beta-2-mikroglobulinaren tasa altua

eta FISH bidezko del(13q14) bat zuten pazienteak ausaz banatzen ziren: edo bigarren GHTA bat hartu MEL-200ekin, edo transplante alogenikoa bestela, 125 mg/m² fludarabina eta 4 mg/kg busulfanekin (30).

Pazienteen kopurua 284koa izan zen, guztira, eta tratamendu-xedearen araberako analisia egin ondoren, ez zen alderik egon talde batetik bestera. 24 hileko batez besteko jarraipena-rekin, batez besteko GGBak 35 eta 31,7 hilekoak izan ziren, eta autotransplante bikoitzeko taldeak biziraupenerako joera handiagoa izan zuen (47,2 hilabete vs 35 hilabete, p=0,07).

Aurreko lanak ez bezala, duela gutxi argitaratu den lan italiar batek emaitza hobekak lortu ditu transplante alogenoarentzat (31). Ikerketa honetan transplante alogenoaren eraginkortasuna paziente guztietan baloratu zen, ez aurrekoan bezala.

7. MANTENTZEKO TRATAMENDUA

Mantentze-tratamenduan talidomida erabiltzea izan da alor honetan gertatutako berri-tasun nagusia.

Talde frantziarrak pazienteak ausaz banatu zituen GHTA bikoitzaren ostean, eta batzuen mantentzea talidomida eta pamidronatoarekin egiten zen bitartean, beste batzuenak soilik pamidronatoarekin (32). Talidomidaren taldean GGB eta biziraupena gehitu egiten zirela frogatu zuten emaitzek, baina hala ere botikaren toxikotasun neurologikoaren ondorioz arazoak izan zituzten.

Lehenago ere aipatu dugun Barlogieren azterketan (17), terapia osoak irausten zuen bitartean talidomida eransteak erantzunak eta GGB gehitzen zituen; ez, ordea, biziraupen globala.

San Miguelen iritziz (18) talidomidarekin egindako mantentze-tratamendua GHTAren oste-an SORik ez duten pazienteetan soilik legoke justifikatua. Talidomida eranstea ez balitz erantzunik sortuko, ez litzateke logikoa izango urtebetez mantentzea, dituen toxikotasun-arazoengatik eta erresistentziak sortzeko arriskuagatik.

Azkenik, 13. eta 14. tauletan ikerketa-lan desberdinen inklusio-irizpideak bildu ditut.

Aipamen-zk.	Inklusio-irizpideak
3	Hb:>7g. Plaketak>50.000. Granulozitoak:>1000. Kreat<3. Jariatzaileak
4	Hb:>8. Plaketak>100.000. Granulozitoak:1500. Kreat.<2,5. Jariatzaileak.
5	Hb:>8.Granulozitoak>500. Plaketak>50.000 (30.000). Kreat. argitzea>20. Kate arin askeak neurtzen dira.
9	Granulozitoak>1000. Plaketak>100.000.Ekokardiograma: FE>50%.
10	Granulozitoak>1000. Plaketak>30.000 Jariatzaileak. Kreat.>2,2.
6,14 15,16 19,20 27	Zehaztu gabeak. (Komunikazioak)

13. taula

Aipamen-zk.	Inklusio-irizpideak
17,21,22	Giltzurruneko gutxiegitasuna duten pazienteak hartzen dituzte. "17" aipamenak hemodialisiako pazienteak hartzen ditu. "22" aipamenak, berriz, kreatinina <5 dutenak.
23, 24	Hb.: >8grs. Granulozitoak>1000. Kreatinina<2. Kaltzioa<14. Jariatzaileak.
26	Granulozitoak:1.500. Plaketak: 75.000. Kaltzioa<14. Jariatzaileak. Kreatinina-argitzea >20.

14. taula

MIELOMA ANIZKOITZA. 2008ko PROTOKOLOA

EBMT erakundeak 2006an aldatutako irizpideak erabiliko ditugu diagnostikoa, erantzunaren balorazioa eta jarraipena egiteko (33).

Tratamendu sistemikoa eskatzen duen mieloma anizkoitzaren diagnostiko-irizpideak:

Serumean eta/edo gernuan M osagai bat ^(a) agertzea, gehi hezur-muinean zelula klonalak eta/edo plasmazitoma klonal dokumentatua.

GEHI honako hauetako bi edo gehiago: ^(b)

- Kaltzio serikoa igotzea (>11,5 mg/dL) (>2,65 mmol/l)
- Giltzurrun-gutxiegitasuna (kreatinina >2mg/dL) (>177 μmol/l)
- Anemia (hemoglobina < 10gr/dl edo balio normala baino 2 g/dl gutxiago) (*hemoglobina <12,5 mmol/l edo balio normala baino 1,25 mmol/l gutxiago*)
- Hezurretako erasana (lesioi litikoak edo osteopenia)

^(a) M osagaia antzemateko modukoa ez duten pazienteetan, serumean FLC (kate arin askeen) ratio anormalak beste irizpidea ordeztu dezake.

- Ez serumean eta ezta gernuan ere M osagairik ez duten pazienteetan, beren serumeko FLC ratioa normala bada, hezur-muinak zelula plasmatikoko klonalen % 10 edo gehiago izan beharko du. Kasu horiek Mieloma ez-jariatzaile bezala etiketatuko dira.
- Biopsia bidez frogatutako amiloidosia eta/edo kate arinen pilaketa sistematikoagatik (LCDD) gaixotasuna duten pazienteak, aldiz, "amiloidosi dokumentatuarekiko mieloma" edo "LCDD dokumentatuarekiko mieloma" bezala sailkatu behar dira, zelula plasmatikoen % 30 edo gehiago eta/edo mielomarekin lotutako hezurretako erasana baldin badaukate, hurrenez hurren.

^(b) Azpiko zelula plasmatikoen trastornoari egotzi behar zaizkio.

Sendatze Osoa eta bestelako erantzun-kategoriak

Erantzunaren azpikategoria	Erantzuteko irizpideak ^(a)
SOz (SO zehatza)	SO behean definitu bezala gehi : - FLC ratio normala eta - Hezur-muinean zelula klonalik ez egotea ^(b) - immunohistokimika edo immunofluoreszentzia bidez ^(c)
SO	- Immunofinkapen negatiboa serumean eta gernuan eta - Ehun bigunetako edozein plasmazitoma desagertzea eta $\leq$ % 5 zelula plasmatico egotea hezur-muinean ^(b)
VGPR (OSPO)	- Serumeko eta gernuko M proteina immunofinkapen bidez detektatzeko modukoa, baina ez elektroferesi bidez edo - % 90eko edo gehiagoko murrizketa serumeko M proteinan gehi gernuko M proteina < 100 mg/24 h.
SP	- Serumeko M proteinaren murrizketa > % 50 eta 24 orduko gernuko proteinaren murrizketa > % 90 edo < 200 mg/24 h - Serumeko eta gernuko M proteina ez bada neurgarria, > % 50eko murrizketa behar da erasandako era erasan gabeko FLC mailen arteko aldean. - Serumeko eta gernuko M proteina ez bada neurgarria eta FLC testa ere ez, > % 50eko murrizketa zelula plasmaticoen kontaketa, betiere zelula plasmatico basalaren portzentajea > % 30ekoa baldin bada. - Plasmazitomen tamaina basalaren > % 50eko murrizketa, diagnostikatzeko unean horrelakorik balego.
GE (gaixotasun egonkorra) ^(d)	Ez du betetzen ez SOren, ez SPren, ez OSPOren edo gaixotasun progresiboaren irizpiderik ere.

^(a)Erantzuteko irizpide guztiek ondoz ondoko 2 neurketa eskatzen dituzte, edozein tratamendu berri hasi aurretik egindako edozein unetan; kategoria guztietan hezurretako lesio progresiborik ez egotearen ebidentzia ere eskatzen da, edo lesio berririk ez egotearena, aurrez azterketa erradiologikoak egin baziren. Azterketa erradiologikoak ez dira beharrezkoak erantzun-irizpide hauek betetzeko.

^(b)Ez da beharrezkoa hezur-muineko biopsia errepikatzea diagnostikoa baieztatzeko.

^(c)Zelula klonalen prezentzia/absentzia kappa/lambda ratioan oinarritzen da. Immunohistokimika eta/edo immunofluoreszentzia bidezko kappa/lambda ratio anormal batek 100 zelulako kontaketa eskatzen du gutxienez. Klon anormal baten presentzia adierazten duen kappa/lambda ratio anormala muga hauen artekoa da: $k/\lambda > 4:1$ edo $k/\lambda < 1:2$.

^(d)Ez da gomendatzen erantzuteko irizpide bezala erabiltzea.

Gaixotasunaren progresioa eta gaixoberritzea

Gaixoberritzearen azpikategor.	Gaixoberritzearen irizpideak
Gaixotasun progresiboa ^(a)	Irizpide hauetako bat edo gehiago eskatzen ditu: Basalarekiko > % 25 gehikuntza ondorengo puntuetan: - Serumeko M osagaia eta/edo (gehikuntza absolutuak > 0,5 g/dl izan behar du) (b) - Gernuko M osagaia eta/edo (gehikuntza absolutuak > 200 mg/24 h izan behar du) - Erasandako/erasan gabeko FLC aldearen gehikuntza. Gehikuntza absolutuak > 10 mg/dl izan behar du (serumeko eta gernuko M osagai ez-neurgarriaren kasuetan soilik) - Plasmozitosi medularra: % absolutuak > % 10 izan behar du (c) - Hezurretako lesio berrien edo ehun bigunetako plasmozitomen garapen argia, edo aurrez zeuden hezurretako lesio edo plasmozitomen tamaina-gehikuntza argia. - Hiperkaltzemia (serumeko Ca zuzendua > 11,5 mg/dl, soilik ugalketa plasmozelularrari egozteko modukoa).
Gaixoberritze klinikoa ^(a)	Irizpide hauetako bat edo gehiago eskatzen ditu: - Plasmozitoma bigun edo hezurretako lesio berriak agertzea. - Aurrez zeuden plasmozitoma edo lesio litikoen tamaina nabarmen handitzea. Nabarmen handitzea honela definitzen da: % 50eko gehikuntza (gutxienez 1 cm-koa), lesio neurgarriaren diametro gurutzatuen biderkaduraren batura bidez modu seriatuan neurtua. - Hiperkaltzemia (> 11,5 mg/dl). - Hemoglobina-mailen jaitsiera, >2 g/dl-koa. - Kreatininaren gehikuntza, > 2 mg/dl-koa.
SOaren gaixoberritzea ^(a)	Honako hauetako bat edo gehiago: - Serumeko edo gernuko M proteina berragertzea, immunofinkapen edo elektroforesi bidez. - Plasmozitosi medularra > % 5 gehitzea. - Edozein progresio-zeinu agertzea (esaterako plasmozitoma berriak, lesio litikoak edo hiperkaltzemia).

^(a)Gaixoberritzeko kategoria guztiek ondoz ondoko bi ebaluazio eskatzen dituzte, gaixoberritze edo progresio bezala sailkatu aurreko eta/edo tratamendu berriari ekin aurreko edozein unetan eginak.

^(b)Gaixotasun progresiboaren kasuan, serumeko M osagaiaren >1 g/dl-ko gehikuntzak aski dira gaixoberritzea definitzeko, baldin eta M osagai basala > 5 g/dl-koa bada.

^(c)SOaren gaixoberritze-kasuan, plasmozitosi medularrak % 5eko ebaketa dauka, gainerako gaixoberritze-kategoriek % 10ekoa duten bitartean.

- "Gaixoberritze klinikoa" kategorian adierazle sail bat sartzen da, gaixotasunaren gehikuntza eta/edo xede-organoen kaltea zuzenean adierazten duten CRAB datuak. Ez da erabiltzen progresiora edo progresiorik gabeko biziraupenera falta den denbora kalkulatzeko, baina praktika klinikoaan aukeran edo erabiltzeko jaso daitekeen zerbait bezala aipatzen da hemen.

- "Gaixotasun progresiboa" kategoria progresiora eta progresiorik gabeko biziraupenera (PGB) falta den denbora kalkulatzeko erabiltzen da, eta bertan paziente guztiak sartzen dira, baita SO on daudenak ere. Horixe da saiakuntza klinikoak argitaratzeko gomendatutako metodoa.

"SOaren gaixoberritzea" kategoria, azterketaren helburua gaixotasunik gabeko biziraupena (GGB) denean soilik erabiltzen da, eta bertan SO lortu duten pazienteak bakarrik sartzen dira. Gaixotasunik gabeko biziraupenaren parametro honek ez du apenas aplikaziorik mielomaren kasuan.

PLAN TERAPEUTIKOA

65 urtez azpiko pazienteak:

Velcade 1,3 mg/m², ziklo bakoitzeko 1., 4., 8. eta 11. egunetan.

Dexametasona 40 mg, ziklo bakoitzeko 1-4 eta 9-12 egunetan

4 ziklo 3 astean behin

Mobilizazioaren ondotik eta OPZG jaso ondoren (2 GHTA egiteko), GHTA bat egingo dugu Melfalan erabiliz, 200 mg/m². SO gertatuz gero, pazienteak behatu beste tratamendurik ez dugu egingo. SP gertatuz gero, mantentzeko tratamendua egingo dugu Talidomida erabiliz, 200 mg.

65-75 urteko pazienteak:

Melfalan 0,25 mg/kg, 1-4 egunetan

Prednisona 2 mg/kg, 1-4 egunetan

Talidomida 400 mg-ko dosia gehienez ere azken zikloko 4. eguna arte

12 ziklo 6 astean behin

Enoxaparina 40 mg/24 h.

75 urtetik gorako pazienteak:

Melfalan 0,20 mg/kg, 1-4 egunetan

Prednisona 2 mg/kg, 1-4 egunetan

Talidomida 100 mg

Enoxaparina 40 mg

12 ziklo 6 astean behin

Giltzurruneko gutxiegitasuna duten pazienteak:

Velcade 1,3 mg/m², ziklo bakoitzeko 1., 4., 8. eta 11. egunetan

Dexametasona 40 mg, ziklo bakoitzeko 1-4 eta 9-12 egunetan

4 ziklo 3 astean behin.

Giltzurruneko funtzioa berreskuratu ondoren, honela jarraituko dugu:

Melfalan 9 mg/hil, 1-4 egunetan

Prednisona 60 mg/hil, 1-4 egunetan

Velcade 1,3 mg/hil, 1-4 zikloetako 1., 4., 8., 11., 22., 25., 29. eta 32. egunetan eta 5-9 zikloetako 1., 8., 22. eta 29. egunetan.

9 ziklo 6 astean behin.

t(4;14) eta t(14;16) duten pazienteak:

Melfalan 9 mg/hil, 1-4 egunetan

Prednisona 60 mg/hil, 1-4 egunetan

Velcade 1,3 mg/hil, 1-4 zikloetako 1., 4., 8., 11., 22., 25., 29. eta 32. egunetan eta 5-9 zikloetako 1., 8., 22. eta 29. egunetan.

9 ziklo 6 astean behin.

GHT alogeniko baten indikazioa.

GHT alogeniko baten aukera planteatuko dugu GHTA baten ondotik gaixoberritzea izan duten 50 urtez azpiko pazienteetan, baldin eta HLA bateragarria den senideren bat badu, batez ere del(17p53) denean.

BIBLIOGRAFIA

1. KC Anderson. "Clinically relevant end points and new drug approvals for myeloma". *Leukemia*, 2008; vol 22:231-239.
2. R Fonseca. "Strategies for risk-adapted therapy in myeloma". *Educational Program. ASH*, 2007. *Hematology*: 304
3. SV Rajkumar. "Phase III clinical trial of thalidomide plus dexametasone compared with dexamethasone alone in newly diagnosed multiple myeloma: a clinical trial coordinated by the Eastern Cooperative Oncology Group". *Journal of Clinical Oncology*, 2006; vol 24(3):431-436.
4. SV Rajkumar. "Combination therapy with lenalidomide plus dexamethosone (Rev/Dex) for newly diagnosed myeloma". *Blood*, 2005; vol 106(13):4050-4053.
5. S Jagannath. "Bortezomib therapy alone in combination with dexamethasone for previously untreated symptomatic multiple myeloma". *British Journal of Haematology*, 2005; vol 129:776-783.
6. M Macro. "Dexamethasone+Thalidomide (Dex/Thal) compared to VAD as a pretransplant treatment in newly diagnosed multiple myeloma: a randomized trial". *Blood*, 2006; Vol 108: 22a (abstrac 57).
7. M Cavo. "Superiority of thalidomide and dexamethasone over vincristine-doxorubicin-dexamethasone (VAD) as primary therapy in preparation for autologous transplantation for multiple myeloma". *Blood*, 2005; 106:35-39.
8. DE Reece. "Management of multiple myeloma: changing landscape". *Blood Reviews*, 2007; vol 21:301-314.
9. H Hassoun. "Doxorubicin and dexamethasone followed by thalidomide and dexamethasone is an effective well tolerated initial therapy for multiple myeloma". *British Journal of Haematology*, 2005; vol 132:155-161.
10. JL Harousseau. "Bortezomib plus dexamethasone as induction treatment prior to autologous stem cell transplantation in patients with newly diagnosed multiple myeloma: results of an IFM phase II study". *Haematologica*, 2006; vol 91(11):1498-1505.
11. A Palumbo. "Prevention of thalidomide- and lenalidomide-associated thrombosis in myeloma". *Leukemia*, 2008; vol 22:414-423.
12. RA Kyle. "Multiple Myeloma". *Blood*, 2008; vol 111:2962-2972.
13. W Bensinger. "Stem-Cell transplantation for multiple myeloma in the era of novel drugs". *Journal of Oncology*, 2008; vol 26(3): 480-492.
14. JL Harousseau. "Velcade/Dexamethasone (Vel/Dex) versus VAD as induction treatment prior to autologus stem cell transplantation (ASCT) in newly diagnosed multiple myeloma (MM): updated results of the IFM 2005/01 trial". *Blood*, 2007; vol 110: 139a (abstract 450).

15. H Goldschmidt. "HOVON 50/GMMG-HD3-Trial: phase III study on the effect of thalidomide combined with high dose melphalan in myeloma patients up to 65 years". *Blood*, 2005; vol 106: 128a (abstract 424).
16. K Zervas. "VAD-doxil vs. VAD-doxil plus thalidomide as initial treatment in patients with multiple myeloma: a multicenter randomized trial of the Greek Myeloma Study Group". *Blood*, 2006; vol 108: 238a (abstract 794).
17. B Barlogie. "Thalidomide and Hematopoietic-cell transplantation for multiple-myeloma". *The New England Journal of Medicine*, 2006; vol 354:1021-30.
18. J San Miguel. "Individualizing treatment of patients with myeloma in the era of novel agents". *Journal of Clinical Oncology*, 2008; vol 26 (16):1
19. M Cavo. "Bortezomib (Velcade)-Thalidomide-Dexamethasone (VTD) vs Thalidomide-Dexamethasone (TD) in preparation for autologous stem-cell transplantation in newly diagnosed multiple myeloma". *Blood*, 2007; vol 110:30a (abstract 73).
20. HM Lokhorst. "Thalidomide in induction treatment increases the very good partial response rate before and after high-dose therapy in previously untreated multiple myeloma". *Haematologica*, 2008; vol 93(1): 124-127.
21. A Palumbo. "Oral melphalan and prednisone chemotherapy plus thalidomide compared with melphalan and prednisone alone in elderly patients with multiple myeloma: randomised controlled trial". *The Lancet*, 2006; vol 367: 825.
22. T Facon. "Melphalan and prednisone plus thalidomide versus melphalan and prednisone alone or reduced-intensity autologous stem cell transplantation in elderly patients with multiple myeloma (IFM 99-06): a randomised trial". *The Lancet*, 2007; vol 370:1209.
23. MV Mateos. "Bortezomib plus melphalan and prednisone in elderly untreated patients with multiple myeloma: results of a multicenter phase 1/2 study". *Blood*, 2006; vol 108 (7): 2165-2172.
24. MV Mateos. "Bortezomib plus melphalan and prednisone in elderly untreated patients with multiple myeloma: updated time-to-events results and prognosis factors for time to progression". *Haematologica*, 2008; vol 93(4): 560-565.
25. KC Anderson. "Multiple Myeloma". *Journal of the national comprehensive cancer network*, 2007; vol 5 (2):118.
26. A Palumbo. "Melphalan, prednisone and lenalidomide treatment for newly diagnosed myeloma: a report from the GIMEMA- Italian Multiple Myeloma Network". *Journal of Clinical Oncology*, 2007; vol 25(28): 4459-4465.
27. JF San Miguel. "MMY-3002: a phase 3 study comparing bortezomib-melphalan-prednisone (VMP) with melphalan-prednisone (MP) in newly diagnosed multiple myeloma". *Blood*, 2007; vol 110: 31a (abstract 76).
28. M Attal. "Stem cell transplantation in multiple myeloma". *Hematology* 2007, 311.

29. H Avet-Loiseau. "Genetic abnormalities and survival in multiple myeloma: the experience of the Intergroupe Francophone du Myélome". *Blood*, 2007; vol 109: 3489-3495.
30. F Garban. "Prospective comparison of autologous stem cell transplantation followed by dose-reduced allograft (IFM99-03 trial) with tandem autologous stem cell transplantation (IFM99-04 trial) in high-risk de novo multiple myeloma". *Blood*, 2006; vol 107(9): 3474-3480.
31. Bruno. "A comparison of allografting with autografting for newly diagnosed myeloma". *The New England Journal of Medicine*, 2007; vol 356:1110-20.
32. M Attal. "Maintenance therapy with thalidomide improves survival in patients with multiple myeloma". *Blood*, 2006; vol 108:3289-3294.
33. BGM Durie." International uniform response criteria for multiple myeloma". *Leukemia* 2006;20:1467-73.
34. Hulin C. "Melphalan-prednisone-thalidomide(MP-T) demonstrates a significant Survival advantage in elderly patients >75 years with multiple myeloma compared with melphalan-prednisone(MP) in a randomized, double-blind, placebo-controlled trial. IFM 01/01 *Blood* 2007;110:31a (abst.75).